

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Luisa Arzallus Mitxelena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Ibaetako Tolaretxe baserrian jaioa. Ama bertakoa zen, eta aita Errezilgoa. 11 senidetatik zortzi irten ziren aurrera. Maria Luisa bigarrena zen, eta umezain ibiltzea egokitu zitzaion. Igarako eskola publikoan ibili zen, eta josten ere ikasi zuen gerora. Baina baserriko lanetan ibili izan da beti. Bretxara joaten zen tratuarekin, eta ezkondu ondoren, San Martinera. Izan ere, Añorgako Txarabategi baserrira ezkondu zen, Antonio Larzabalekin (ondoan zegoen elkarrizketaren unean). Sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-108

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-22
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

DON-225

- **Proiektua:** San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larzabal, Iker - Rodriguez, Lander
- **Data:** 2024-02-20
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Lekaroz Mazizior, Gorka

Pasarteak

1. Kongregazioa eta eskola

- **Erref:** DON-108/003
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:04:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Tolaretxe inguruko baserriak. Kongregaziora Igeldora joaten ziren hilean behin. Eskolara Igarara; non zegoen. Petra Begiristain nafarra zen maistra. Zer ikasi zuten. Enziklopedia. Dena erdaraz.</p>

Transkripzioa

-Eta han, e, inguruan-eta... ze baserri zeon?
-Han baserrik ba... hiru o lau badaude oaindikan han. Bai, Ansotei-ta... Arixita-ta... Zugastieder-da... Bai.
-Eta lehen... hori, inguru hori asko aldatu da, ezta?
-Bai, bai, bai. Oain hor zea, fabrika-ta asko in ditue. Asko.
-Zu umia ziñanian e... nola, zer zeon?
-Pues zer, ba... zer zeon? Pues hoixe: eskola bat eta basarri batzuk.
-Eta baratzak...
-Baratzak eta besteik ez. Ta hoi Igeldoko partikua, partekua zan, ta kongregaziyoa ta, honek esan dun bezela, Igeldoa juten giñen goizeko seietan. Hillian behin.
-Kongregaziyora Igeldora?
-Bai. Urtian behin o bitan juten giñan...
-Aldapa dao...
-Bai, aldapa, bai. Oiñez, e! Oiñez, bai. Bai. Oiñez, bai.
-Eta eskolara hor...
-Igaraa. Bertan, bertan.
-Orduan, gertu, ez?
-Bai, bueno, bai, bai, gertua.
-Eta zer zan, eskola publikoa ala...?
-Bai, eskola publikua. Goiyeen neskak eta behiyan mutillak.
-Eta nun zeon hori, Portuette inguruan?
-Ba han e... Gurelesan, Gurelesa baiño... don zea hartan, hantxe zan, han rotonda bat bado, ezautze... ez dakit ezautze... hantxe, rotonda hartan. Han txatarrei bat-ta badaude, hantxe, hantxe... zan eskola.
-Hantxe zan?
-Bai.
-Eta esan dezu aparte neskak eta mutillak, eta zuen maistra-edo nor zan?
-Nor zan? Petra Begiristain. Naparra. Soltera.
-Eta hori... gogorra?
-Ba... beno, hor nunbait. Behiyan maixua bizi zan, baiño hua gukin askoz gehiyo sartzen zan maestra baiño. Bai.
-Eta zer, zer ikasten zenuten edo...?
-Ba puf, oain bezela: resta... suma, resta, multiplicación ta dibisiyoa, ta gero batzugin kebraduak-eta, zerbait in nitun beste zea batzuk, ze izena zun harek? Aritme... Baiño kebraduak... beste bat´e bazan. Haik ahaztu zaixkit, e. Eta...
-Eta...
-E?
-Libururik-edo bazenuten?
-Bai, e, genun enziklopedi bat, eta han zauden “gramatica, historia sagrada, historia de España, geografia”... dena bat, dena batian zauden. Bai.
-Eta pizarrarik-edo, idazteko?
-Ez. Zea...
-Paperian?
-Paperian iten genun, bai.
-Tintakin?

-Tinta, bai, plumakin zan ordun, e! Pluma.
-Eta honek, e... Petrak, jo-edo iten zun ala ez?
-Ez, ez zun hola jotzen, ez; Petrak ez zun jotzen, ez. Ez...

2. Dena erdaraz, eskola eta dotrina

- **Erref:** DON-108/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:19. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Dena erdaraz, eskolan. Laborea egiten zuten arratsaldetan. Dotrina, eskolan bertan. Jaunartzea egiteko, parrokiara. Don Dionisio Ruiz. Dotrina ere erdaraz. Etxean euskaraz.

Transkripzioa

-Eta euskeraz ezingo zenuten in...
-Batez! Batez. Ni eskolan hasi nitzanian, ez nun entenditzen... erderaz, baiño ezer ez! Baiño geo, nola-hala erdeaz ikasi genun. Nik ez dakit idazten ta letzen ta eskri... zea euskeraz, e! Gaixki iten det, e. Klao, dena erderaz, dena erdera, dena erdera in genun...
-Klaro, hori ikasi zenuten ta... nola jakingo dezu ba?
-Bai, ba. Bai.
-Eta hor, e, eskolan, asko zeundeten gelan?
-Bai, ba bastante, e. Nik ez dakit, baiño hogeita hamar eongo giñan, e. Bai.

-Eta adin beretsukuak?
-Ba, bueno... hiru-lau mailla o izaten zan. Bai, bai. Nei ez zitzaian gustatzen eskola, e.
-Ez?
-Ez. Asko faltatu nun, baiño ez zitzaian gustatzen.
-Eta kantatzen zenuten? «Cara al sol» ta...
-Bai, bai, hoik berdin-berdin, bai.
-Bai?
-Geo atsaldian iten genun, atsaldero ordubete o bi zea, eskulanak baiño trapuan. Laboria.
-A, laboria.
-Laboria euskeraz ez dakit nola esaten dan...
-Bai, laboria.
-Laboria esaten al da oain?
-Bai, ta hor e...
-Bainika ta festoiyak eta holako gauzak.
-Eta maistra horrekin ala...?
-Ez, ez, batekin.
-Dana batekin.
-Batekin, eta nik hasi ta buka horrekin in nun.
-Eta dotriña?
-Dotrina´re bai.

-Hor ikasten zenuten?
-Hor ikasten genun, bai.
-Eskolan bertan.
-Eskolan bertan. Geo, komuniyua iteko azkeneko urtian juten giñan Antiguaiño, astian bitan uste det juten giñala.
-Han, e, eliza...
-Eliza haundi harta.
-Hara?
-Beno, ordun ez zan holako haundiya. Txikiyagoa zan, baiño bai.
-Eta han ze apaiz edo... katekistak edo zer...?
-Ez, apaizak zian, apaizak, bai.
-Eta nola zun izena?
-Nekin in zunak, Don Dionisio Ruiz.
-Eta dotriña´re erderaz?
-Erderaz, bai. Dena erderaz, dena erdera. Den-den-dena erderaz!
-Etxian ez, etxian...
-Ez. Etxian euskeraz, etxian ez.

3. Arkume-hezurrekin jolasean

- **Erref:** DON-108/006
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Arkume-hezurak, harrapaketan. Sokasaltoan. Txingoak. Kartoizko panpina, Santo Tomas egunean erosia, hausten zioten anaiek.

4. Zaldi-karroarekin Bretxara

- **Erref:** DON-108/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:09:21. **Bukatu:** 00:11:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bretxara joaten zen ama, zaldi-karroarekin. Aitak baserrian egiten zuen lana. Umetako jolasak baserrian. Kilkerrak. Gurdiaren pertikara igota. Aita ama baino gogorragoa. Zigorrak. Arrosarioa.

5. Errekan arropa garbitzen

- **Erref:** DON-108/008
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:11:41. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa garbitzera, errekarra. Garbitokia nolakoa zen.

6. Masusta asko jatea komeni ez

- **Erref:** DON-108/009
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Marrubiak, masustak, kilkerak... Masustei buruz amak esaten ziena. Txitxareak kentzeko zer egiten zen.

7. Bost hilabeterako, babarrunak jaten

- **Erref:** DON-108/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Umeak zaintzea zen bere lana baserrian. Lehen, pardelik ez. Aia, meriendatzeko. Babarrunak, txikituta, bost hilabeterako. Denak batetik jaten zuten. Postrea.</p>

Transkripzioa

-Eta umetako lanak, zuriak, baserriyan, zeintzuk zian?
-Neriak izan zian umiei kontu itea. Nere senidei kontu iten. Haik kakak eitten zuenian hairi pardela garbitzen. Pardela ez, hain galtza zikiñak garbitzen!
-Lehengo pardelak-eta...
-Ez zan pardelik ta ezer'e... galtzetan goitik behera iten zuten, dena zikinduta ibiltzen zian, o ibili giñen, e?
-Pardelik ez, orduan.
-Ez zan pardelik, ez zan pardelik, ez. Dena hoixe, zikinduta, dena holaxe.
-Eta dana garbitu ber...
-Dana garbitu bihar, buuuuf...
-Eta umiei kontu iteko-ta, umiei jaten emateko-ta...

-Nik asko eman diyet nere senidieri bai... buf.
 -Oso txikitan ze ematen zitzaien?
 -Bakizu ze merienda ematen zan? Aya! Bakizu ze dan aya?
 -Iriña...
 -Iriña, ogiriña... iriña esniakin. Ta azukriakin. Papilla bat bezela, lodi-lodiya. Hua meriendan behintzet hua izaten zan. Ta gero bazkaltzian babarrunak, ordun ez zan pasapurerik ta ezer'e, tenedoriakin txiki-txiki in, ta hua. Ta txokolate ta ogiya ta. Txikitan hasi giñan gu jaten, hola, bai.
 -Tontokeri gutxi zeon orduan, ezta?
 -Honbre, ze eongo zan.
 -Tititik, ya gero poliki-poliki denetik jatera...
 -Denetatik, bai. Babarrunak, babarrunak esaten zuen bost hillebeteako ya hasten giñala jaten babarrunak. Ordun babarrun asko jaten zan, e. Lentejak ta hola gutxi jaten zan, e. Babarrun asko ta makarroyak'e bai. Ta patata ta holako gauzak jaten zian ordun, e.
 -Babarruna iya egunero.
 -Bai, babarruna eunero, eta gaiñea, bakizu nola jaten genun? Erdi-erdin jarri fuente haundi batian babarruna, ta handik denok. Batetikan, hola, bidetxurra iñez, tantoka-tantoka-tantoka.
 -Orduan, komeniko zan azkar ibiltzia!
 -Zuk'e ingo zenun hoi? (senarrari) Ez, e? Zuk ez zenun ezautu hoi, e? Beira, nik hoi bai.
 -Ba komeniko zan, azkarrenak ondo baiña bestiak igual gosetuta gero...
 -Halaxe iten genun, bai.
 -Eta postre bezala ta...
 -Keba!
 -Sagarra-eta?
 -Bai, sagarra zanian etxian sagarra, ta "arroz con leche" iten zun, bai, amak.
 Intxorrak ta holako gauzak.
 -Gaztaiñak eta bai?
 -Bai. Baiño guk postre bezela... ez ziguen propiyo jartzen. Jaten giñunian intxaurrek atsaldeko erdin, atsalde erdin hartu ta jan ta...

8. Baserriko otorduak

- **Erref:** DON-108/012
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Eguneko otordua. Goizean esne-zopak, hamaiketakorik ez. Merienda, txokolatea eta ogia. Ogi beltza eta zuria. Taloa. Baserritar gutxi zebilen Antiguako lantegietan lanean. Amak esnea eta berdura Benta Berriko denda batera eramaten zituen. Tranbia.</p>

9. Josten ikasten, lau urtean

- **Erref:** DON-108/013
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:19:29. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Josten ikasten ibili zen, Antiguan. Añorgara ezkondu zen, baserrira, eta etxerako bakarrik josi du. Kalera joaten zen, berdurarekin; autobusean bidaltzen zituen trasteak. Josten ikastera. Umeak zaintzen, bestela. Baratzeko lanak. Arropak garbitu. Ura noiz jarri zuten.

10. Arropa eta oinetakoak

- **Erref:** DON-108/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Oparirik ez zen egiten Jaunartzea egitean. Lehengusuaren soinekoarekin. Arropa jostunak egiten zuen. Anaiak izan zuen istripua. Oinetakoak hankaz aldatzen zituzten. Garbitasuna. Xaboa.

Transkripzioa

-Eta orduan, e, erregalorik-ta iten zan komuniyua indakuan?

-Keba!

-Ez, ezta?

-Keba, ez zan ezer, ez erregaloik ta ez ezer.

-Eta soiñekua ta...

-Soiñekoa prestatutakua. Nik lehengusu batenakin in nun, lehengusuak bazulako. Ta erropa´de harek nahi ez zuna, Antiguoko lehengusu harek nahi ez zun erropa harek... nik ibiltzen nun. Harek nahi ez zuna netzat.

-Orduan, e, erropa ez zan dendetan erosten, ez? In...

-In, in, in, bai. Nei izeba horrek, Antiguoko izeba horrek asko iten zun.

-Eta tela-ta nun erosten zan?

-A, zean erosiko zan, Donostian erosiko zan, noski.

-Eta gero jostunak in...

-Bai, bai, bai. Jostunak, bai.

-Eta zuek, e, baserriyan hanka hutsik-ta ibili izan ziñaten garain batian?

-Ez, ez, ez. Nere anaya bat behin behiyak harrapatu zuen, ta holakoxe zea in ziyon. Zea, zea bat, jesus...

-Zauriya?

-Bai. Holako... ebaki bat moduan, bai. Borrokan hasi behiyak, eta ebakiya. (Maria Luisak galdera beste era batera ulertu duela dirudi: "hanka hautsirik" edo)

-Jesus.
 -Ta besteik ez, gaiñontzian ez naiz goatzen hola.
 -Zuek oiñetakuak-eta, ze erabiltzen zenuten?
 -Abarkak, alpargatak... puskatzen giñunian txinguan-ta alpargatak ama erritan, ta segi aurea! Hontan, muturran puskatzen bazian, geo aldeantziz jarri!
 -Alderantziz?
 -Argi! Klaro, hemengua hemen jarri, hemen zuluaz zulako.
 -Orduan ondo aprobetxatzen zenuten...
 -Ba honbre! Aber, aber... Soñekuak´e...
 -Zuluaz in ezkerre josi ta...
 -Hoixe! Ta astian behin gaiñea, erropak aldatu´de. Astian behin, bai, aldatuko giñun.
 -Eta garbitu ere, gorputza-ta...
 -Ba hoixe, zinka, noizian behin. Noizian behin, ta “ya está”.
 -Orduan ez zan... usaiyari ez zitzaion holako inportantziarik emango...
 -Ke ba! Ez zeon holakoik! Ez zeon, eske... txanpuik, ba al zan orduan gaiñez txanpuik ne garayian? Ke ba, ez zan, jaboiyakin! “Jabón Chimbo y Lagarto era”.
 -Hori erropendako.
 -Normala hoitxekin, hoikin garbituko giñan, noski. Txanpuik-ta ezer, lakaik-ta... ezer ez zeon. Koloniaik ez dakit bazen. Keba, ez naiz goatzen.

11. Motoan mutil-lagunarekin

- **Erref:** DON-108/017
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:25:13. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

<p>16-17 urterekin hasi zen dantzara joaten. Konporta, Irubide. Motoan nobioarekin Zarautzera. Igarako ile-apaintzailea. Galtzerdiak eta ligak. Takoi altuko zapatak zeuden modan.</p>

Transkripzioa

-Ta zu zenbat urtekin hasi ziñan dantzara-ta juten?
 -Ba zea, hamazazpi o hamasei o.
 -Eta nora? Irubidera?
 -Irubidea. Konporta ta geo Irubidea-ta...
 -Eta hori igandero ala...?
 -Bai, ia igandero, ta geo honekin hasi nitzanian moto bat bazun ta, motuan Zarautzeaiño bueltaka ta... bestian Errenteira ta...
 -Esaten zuten: “El que tiene Vespa tiene neska”...
 -Neska? “Pero este tenía Lanbretta. Tenía Lambreta!”. Ta ordun, gaiñea, han... alde batea!
 -A, bai?
 -Ba honbre! Ordun galtzik-eta ez zan jazten... ta alde batea. Gona [...] ta nola jungo ziñen ba hola, hankak zankala-trankala? Burun paiñelua jarri hola, illiak ez banatzeko, ta...

-Eta pelukerira-ta juten ziñaten?
 -Ba... gutxitan, baiño bai. Nik permanentiak iten nitun, bai.
 -Bai?
 -Bai. Iten nitun, bai.
 -Eta nun, Antiguan?
 -Han ez, Igaran bertan, han baserri batian pelukera bat bazan, ta hantxe iten nitun, bai; iten nun, bai.
 -Ta makillatu-ta iten ziñeten?
 -Bai zea! Makillatu?
 -Eta depilatu-ta?
 -Bueno... Ez nakin nik zer zan depilatzia, eta ezer ez.

12. Dantza lotua bekatu

- **Erref:** DON-108/019
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:27:37. **Bukatu:** 00:29:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Galtzak noiz hasi ziren erabiltzen. Ahizpak jantzi zituenean kritikatu egin zuten. Eskoterik ez. Kongregazioan euskaraz. Don Fabian Loidi. Dantza lotua bekatu. Gustatu egiten zitzaion dantza. Tabernetan emakumerik ez.</p>

Transkripzioa

-Eta gonakin beti?
 -A, honbre, gonak, bai.
 -Galtzak-eta noiz hasi ziran erabiltzen?
 -Buf.
 -Gero?
 -Gerogo, ni ezkondata´re nere ahizpa Tomasak... zenbat urtea ni ezkondata jarri zitun? Zenbat ditu ni baiño gaztiaua? Ez dakit ba nik. Ni honea etorri nintzan el... “qué año”?
 -“Sesenta y dos”.
 -Sesentaidosian, pues... Seseintanueven o hola, nere ahizpa batek jantzi zitun lenbiziko aldiz, ta nola kritikatzin aitu zaixkiyon denak. Ba ez, ordun ez zan jazten, ez, eske iñork ez zun ematen emakumiak, e, galtzik, e.
 -Eta, e, gona motzak ere ez?
 -Ez, normal. Honeaiño.
 -Belauna beti tapatuta.
 -Ta eskoteik´e ez, mangak´e, mangak´e honeaiño... mangik gabe ez. Nere garayian, geo ya bai, baiño.
 -Klaro.
 -Eskoteik ez, honbre, eskote normal bat, baiño ez...
 -Eta, e, zu Mariaren alaben, e...
 -Hombre! Jun biher zan!
 -Hori, esan dezu, Igeldora...
 -Igeldoa. Holaxe jarri zinta bat, ta hola errenkan jartzen giñen.
 -Eta han euskeraz ala erderaz?
 -Euskeraz, euskeraz.

-Han euskeraz ingo zuten elizan...
 -Bai, bai.
 -Ta zein eoten zan apaiz?
 -Don Fabian Loidi.
 -Eta hark ze esaten zun? Helduta dantza itia-ta pekatu zan ala ez?
 -Hoixe, honbre! Ez iteko-ta, ez dakit ze ingo zala-ta, bakit ze in zala ta...
 -Eta zuk sinistu ez?
 -Keba! Guk han...
 -Honek dantza in! Hamasei urtekin, dantzarako fuerte...
 -Ta gustatu iten zitzaizuen?
 -Bai, bai, bai. Beste... ez zeon besteik, tabernara´e ez giñan sartzen. Emakume bat ez da sartzen. Oaindikan iñoiz ni bakarrik ezin naiz sartu. Egarrri haundiya-ta baldin badakat´e ezin naiz... ez naiz ohitu, ta ezin naiz sartu barrua bakarrikan. Iñor balin baet bale, baiño bestela ez.
 -Orduan gaizki ikusiya zeon...
 -Uuuuuu. Bai. Ze, hau zemat biher, nobiyotan´e, hau barrena sartu ta ni kanpun gelditu. Ta bueno, alde zaharrian´e in deu hoi. Bai, bai bai. Ordun emakumia ez giñan sartzen.
 -Eta... kafeterietara-eta bai...
 -Ba al zan ordun horrelako kafetei espezialik? Nik ez dakit. Ez zan eongo, keba.

13. Aita leihoan zain

- **Erref:** DON-108/021
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:30:02. **Bukatu:** 00:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dantza. Aita leihoan egoten zen zain. 10:00etarako etxera. Bitan utzi zioten gauerdian bueltatzen. Handik gutxira aldatu ziren gauzak.

Transkripzioa

-Eta zuen dibertitzeko modua, orduan, dantza itea jutia.
 -Dantza itia zan, besteik ez. Ta nere aitta eoten zan han leihuan holaxe jarri, noiz... Hamarrak paiño lehen, etxea! Ni, ezkondu baiño lehen, bi bider o holaxe junda no hamabitan. Bi bider o hola utzi zian, Añorgako... hemen, Añorgako festetan behiñ eta Ibaetako festetan. Eske gabian atea ta behin ez gea in gu.
 -Illundu orduko etxian.
 -Bai, bai, bai. Beno, hala zan ordun, e!
 -Senarra: Bai ba! Hala zan ta.
 -Ez, kanpuan ta gabian ta ez [...]... handik bela hasi zan jendia ya... ya apaita jutun ta /da/... bat eta beste, baiño gue garaiyan ez zan hala artian.

14. Inauterietako eske berezia

- **Erref:** DON-108/022
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:32:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

San Juan sua. Lizarra. Ez dira sekula kantu eskean ibili. Inauterietan zarpantzar jantzita ibiltzen zen auzoko baserritar bat. Arrautzak ematen zizkioten. Eskekoak. Saltzaileak.

15. Sacamantecas

- **Erref:** DON-108/025
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:34:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Ipuinik ez zieten kontatzen etxean. Sacamantecas.

16. Baserritik baserrira ezkondu

- **Erref:** DON-108/028
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:37:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Kostatu egin zitzaion ohitzea, ezkontzean. Bost emakume zeuden senarraren baserrian. Baratzeko lanetan ibiltzen zen. Antiguan ezkondu ziren. Zuriz jantzita, lehengusuak egindakoa. Arzak jatetxean egin zuten bazkaria.

17. Arreoa eta ezkon-bidaia

- **Erref:** DON-108/030
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Arreoa. Maindireak, mantelak, ontziak... Ezkontzean ez zen dirurik ematen. Ohea ere ekarri zuen, Grosen erosita. Ezkon-bidaia eta bazkaria senarraren gurasoek ordaindu zuten.</p>

18. Haurdunaldia aipatzea, lotsatzekoa

- **Erref:** DON-108/033
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:43:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Etxean ez zen sexua aipatzen. Hilerokoa jaitsi aurretik amak abisua eman zion. Zazpi urterekin hasi zen konturatzen. Amak lotsa handia pasatu zuen hamaikagarrenarekin, seme-alabek bazekitelako.</p>

Transkripzioa

-Lehen, sexuari buruz-ta ez zala hitz eiten...

-Keba!

-Ez zutela ezer esplikatzen etxian-ta...

-Ez, ez, ez, ezer ez.

-Eta hillerokua jetsitakuan, jetsi aurretik ero...

-Bai, ordun bai, amak nei esan zian, bai.

-Amak esan zizun?

-Bai, bai, kontuz ibiltzeko, ta hola ta hola izango nula... ta bai, hoi bai, hoi bai esan zian.

-Orduan, abixua...

-Hoi eman zian, abixu hori eman zian.

-Bai, batzuri hori ere ez...

-Bai, bai, nei hoixe eman zian. Gai... gaiñontzian ezertxo´re ez.

-Ezertxo´re ez.

-Bai, baiño nei hoi esan zian. Bueno, hille... jeisteakuan, jetsi baiño lehenuo, etorriko xaixkiala ta ya, kontuz ibiltzeko, ta kontuz ibili beharra dola ta... Klaro, ezin zan, ta mutilla asko zeola, ta ordun ezin zan ezer esan´e! Ta gauzak. Eta bai, hoi esan zian nei, hoi esan zian, bai.

-Eta zuk, e... zu bigarrena izanda, zure amak-eta umiak euki... Zu txikiya ziñala, jaioko zian zure anai-arrebak.

-Bai, bai.

-Eta zer esaten zuten orduan?

-Ba beida, ni ez nitzen ordun kontuatu, ta kontuatu nitzen... zazpi urte in nitun ta komuniyua in nunian, nee ama ez zan nerekin jun. Eliza ordun amak joten zian, eta eskolatik bagatozen etxea, komuniyua in nunian... Antiguoko izebakin jun nitzan. Eta esan zigun... taxisa bat gelditu zan, eta: "De dónde sois?", esan ziguen erderaz, eta: "Pues somos de Tolaretxe". "A, ya teneis un hermanito". Geo kontuatu, klao, ez zala nerekin ama jun... handik bi eunea jaio zan ne anai bat eta! Hoi geo, geo... Eta geo... pues... ni ya ez nitzen behiñe... Azkenekuakin bai, azken... porque nekin damaki gaztenak hamazazpi urte. Eta amak esan zun nola esperuan zeola esan zula, esan zun, hoi bai esan zigun. Ta geo esaten zigun, sekulan hainbesteñoko lotsik ez zula pasa, hamaikagarrena zula baiño harekin bezela. Ta zeatik? Ta gu haundik giñalako.

-Zuek haundiyak ziñatelako?

-Bai, eta gue aurrian hala ibiltzia, zeatik ne anai zarrenakin zeamakin hogei, hogei urte. Ya diferentziya, ta nekin hamazazpi urte. Ta bakizu gue aurrian nunbait hola ibiltzia... ze, lotsa emango zion! Hala esaten zigun.

-Nola ibiltzia?

-Estadun, beno... tripa haundiyakin gue aurrian, "pues" zea emango zion, "un poco"...

-Bai, e?

-Hala esan zun, hala esan zigun behin!

-Bai.

-Ze...

-Ze gauza, e?

-Bai.

-Hamaikagarrena zun, baiño...

-Eta zuri, aurretik ze esaten zizuten, e... nola, umia etor... " Beste anai bat dakazu!", eta nundik etorritakua?

-Ba nada! Ni´re ez naiz, ez naiz kontua...

-Zikoiña edo...?

-Bai, zigueñak, esaten ziguen.

-Zigueñak ekarri zula?

-Bai, bai, zigueñak.

19. Amari ume egiten laguntzen

- **Erref:** DON-108/034
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:43:01. **Bukatu:** 00:47:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Amak etxean izan zituen ume denak; azkenengoarekin lagundu zion. Emagina. Ura berotu. Haur-laguna. Jaioberria nola janzten zuten. Fajak. Egurrezko sehaska.

Transkripzioa

-Eta zure amak danak etxian euki zitun?

-Bai, etxian denak. Eta...

-Eta zuk, e... lagundu zenun?

-Nik azkenekuakin bai.

-Bai?

-Azkenekuakin, "porque" nere aitta... etorri zan, ordun [...] zan, ta beste mutil bat´e bazan sihaskakua, ta nere kuartoa´ta hola ekarri zituen ta mobimentua sentitzen nun nik. Eta ura berotzen jartzeko, ta ordun suba in bihar zan, eta suba iteko-ta esan zien, ta aitta jun zan, beste baserri batea jun, aman ahizpa bat han bizi zan, ta hua etortzen zan launtzea, ta geo itten zun eskolako, Igara... Igaran eskola jun ta handikan deitu ziyuen komadronai. Telefonua. Eta esaten zien amak: "Ba al datozte? Ba al datozte? Ba al datozte? Ba al datozte?". Nunbait larri zan, larri zan, ta /da/ hantxe etortzen da, ta "batozte, batozte", esaten niyon, ta etorri zan aitta, sartu zan ta esan zian: "Traigo la...". Holaxe, erderaz esan zun: "Traigo la comadrona, pero no traigo la asistenta" o ez dakit zer. Ahizpangatikan, porque... gaixorik, hua gertatu. Eta san ziyon besteia: "¿Qué es ésta, la hija?". Sí. "No te apures, no te apures". Eta ni hantxe ibili nitzan urak eta gauzak eta istorik-eta ematen.

-Ze, nola laguntzen zan edo? Ura, ura...

-Ura beruak eta... garbitzeko gauzak.

-Pañuak...

-Toallak-eta, bai. Ura bero... palankan. Orduan izaten zian palankana zuri batzuk. Zeazkuak, gaiñea, lurrezkuak izaten zian. Bere palankana ta bee txarro haundi bat. Klao, han ura prepatzen zan, medikun bat o baten bat etortzen bazan han eskuk garbitu ta han iteko denak. Eta nola ura beroik ez zeon, ba eltzian berotu behar zenun...

-Klaro...

-Sua einda!

-Eta gero ura erabiliko zan baita ere umea, jaioberriya...

-Bai, garbitzeko-ta. Bai.

-Garbitzeko, ura ala oliyua ala zer erabiltzen zan?

-E?

-Umia garbitzeko, ur epela?

-Ur epela ta toallak-eta hantxe, hantxe... Nik gaiñea ahal nuna aldein iten nun, baiño...

-Komadronak ze, ze iten zun?

-Pues...

-Komadronan lana zein da?

-Komadro... pues, umiai laundu ta...

-Laundu, baiña tira-ta ez da ingo...

-Tira-ta, bai... Tira, ta kordoiya zeatu ta... Klao, laundu, ateatzen.

-Laundu, bultza in ta...

-Bai, bai. Hoik denak ikusi nitun azkenekuakin.

-Eta kordoiya, nola? Goraizekin?

-Goraiziekin, eta gero ez dakit nola in ziyon. Ni ya...

-Bai, korapillua...

-Korapilloa, bai. Oain pintza bat jartzen ye, pintza bat baiño...

-Orduan ez.

-Ez, orduan ez zan holako gauzik. Korapillo bat iten zan, eta hua gaixtotu iten zan kontuatzen ba... ez, kontuatzen ez baziñan ta...

-Eta zer iten zan, e... plazentakin? Haur-lagunakin?

-Plazenta, pues bota, lurrea.

-Bota, baiña gero... ze iten zan, lurperatu?

-Lurrea o komunen barrena o botatzen zan, nik ez dakit noa. Bruuu, ni ez naiz oain hoi goatzen, baiño... bai, bai. Holaxe.

-Eta umia.... e, fajan bat edo...?

-Oooo... Umia: umia zeon... kamixeta txiki bat jazten zaiyo, geo trapuzko zea, "de batista" o hola zan, geo beste bat lorixegoa, manga luxiakin, botoirik gabe eta ezer gabe... holaxe kruzatu iten zan fajakin, benga! Buelta ta buelta ta buelta. Geo jartzen zitzaion trapu bat; ze izena zun harek? Ez dakit. Gero, pixiyola. Ta geo ostea benga, haik lotzeko, benga beste faja bat!

-A, bai, e?

-Faja bai... ta geo beste pañelu txiki bat, pañelu txuri bat, baiño in iten zan propiyo, "de batista". Hola jartzen zan, hola-hola, ta kruzatu iten zan. Kolkua zabalik gelditzen bazaion, itxi-itxi iteatik umiai, hola.

-Orduan hotzik ez zuten pasako!

-Buuuf. Klao, orduan ez zan pikoik eta ezerre. Geo bai, geo pikuak atea zian. Ta geo ez zian bihar faldoiya luzi hoik, baiño zenbat pixiyola ta... barrenguk ze izena zun? Pixiyola... ez naiz goatzen oain. Bi trapu jartzen xixkiyon, bat felpazkua gaiñian...

-Troza?

-Ez dakit ze zan, ez naiz goatzen oain momentuan, baiño bi gauza. Geo jertse txikiya, eta geo mantoiyian o toallan bildu, eta sihaska sartzen zan. Toalla gaiñetikan beste toalla txuri bat burutik behera jarri, eta han bildu ta

sihaska sartzen zan. Klaro, kalefaziyoik-ta ordun ez zan ezerre-ta.
 -Klaro...
 -Ba umia, zenbat... puuuf, zenbat fajaldi! Zenbat faja! Eta txilborrentzat beste gasa... gasa bat.
 -Eta negar iteko-ero iten zitzaion, hola pixkat astindu?
 -Astindu o zea, buruz behera jarri... ta haiziak botatzeko ta...
 -Ikusteko ia normala zan, ondo jaio zan...
 -Bai, hola jartzen zuen ta bai.
 -Bai.
 -Eta sehaska, nolakua izaten zan?
 -Holakua.
 -Egurrezkua?
 -Bai, egurrezkua. Tin-tan-tin, hola balantza-balantza iten zun...
 -Eta hankakin mugitzen...
 -Moitzen, baita ´re.
 -Eta orduan sonajerorik-eta ez zan eongo...
 -E, keba! Keba... Kutxarillak-eta.
 -Kutxarillak?
 -Kutxarillakin hola in, ttan-ttan-ttan ta... eltze tapakin-ta, kazuela tapakin-ta hola iñez...

20. Kutuna, ur bedeinkatua...

- **Erref:** DON-108/038
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Kutuna jartzen zitzaien umeei lehen, lepoan zintzilik. Ur bedeinkatua. Mezetara jaiero. Eskolan galdetu egiten zien maistrak. Asko faltatu zuen eskolara. 14 urte arte. Utzi zuenean, gustura. Ezin etxeko lanak egin, eta maistrak burla.</p>

21. Baserriko lanen banaketa

- **Erref:** DON-108/039
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:52:42. **Bukatu:** 00:53:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Baserriko lanak. Egurra txikitu, marmitak garbitu, ura ekarri, umeak zaindu... Behiak jeztea. Gizonen eta emakumeen lanak.</p>

Transkripzioa

-Eta lanik gogorrena zuretzat, baserriyan?

-Nik, bueno, nik... baserrin lana asko... bueno, bai, eskubarian-ta aitu naiz... hola, ta itulian ez. Beti izaten nun seniren bati o bestei kontu in beharra. Nik lana hoixe izaten nun. Egurra txikitu, hoi bai. Egurra txikitu, marmitak garbitu, marmitakin ura etxea ekarri... nere lana hoixe izaten zian. Umen bati kontu in beharra...

-Eta behiyak jetzi ta?

-Ez, nik holakoikan ez.

-Hori nork iten zun?

-Hoi aittak iten zitun. Aittak o anaiyak iten zitun, bai.

-Hori gizonen lana zan, zuen baserriyan?

-Bai, ba bai. Bazeon anai bat ne aurretikan eta beste bat atzetik nun, eta haik ya lan haik... nik holakoik ez det in. Eskobarian ta hola bai.

-Eta baserriyetan egoten zan... lan batzuk izaten zian gizonenak...

-Bai.

-Eta beste batzuk emakumienak... edo bueno, etxeko lanak, behintzat, emakumienak.

-A bai, hoi bai, hoi bai.

-Hori beti, ezta?

-Betikua da hoi. Hoi bai, erropak eta zapatak-eta denak emakumian lanak. Eta gauzak jasotzia de emakumian lanak. Oain etxe hontan e holaxe do, emakumien dana da hoi.

-Eta etxia garbitzia eta...

-Hoi, bai. Hoi dena, hoi emakumiana zan.

-Janariya prestatzia ta...

-Hoi dena, dena. Dena, dena. Mahaiya jasotzia ta...

22. Baserrian bizitzeko, zorpetu

- **Erref:** DON-108/042
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:57:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Maiorazgoaren Legea azaltzen du senarrak. Arrebei dirua eman behar (herena), eta kreditua eskatu zuten ordaintzeko. Larri ibili ziren. Behi bat salduta kitatu zuen kreditua, azkenean. Igandetan ere lanean.

23. Añorgako ikastola

- **Erref:** DON-108/043
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 00:59:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Añorgako ikastola. Lau ikasturte egiten zituzten. Gero, elizan eta ondoren Amosarrain. Santo Tomas lizeoa garestia zela eta alabak Elizarango mojetara.

24. Txerria eta oiloak

- **Erref:** DON-108/045
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:00:07. **Bukatu:** 01:02:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gazia asko jaten zen. Urdaiazpikoa oliotan izaten zuten. Oiloei artoa ematen zieten jateko, eta arrautza gutxiago jartzen zuten. Arrautza erruteko zeuden ala ez jakiteko, behatza sartu.

25. Oilalokak eta txitak

- **Erref:** DON-108/046
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 01:02:04. **Bukatu:** 01:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txitak. Oilarra. Oilalokak. Auzora arrautza bila. Habiak. Zapelatzak. Animaliak etxe barrura sartzen ziren lehen.

26. Ostiral Santu egunean aletutako artoa

- **Erref:** DON-108/047
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:06:04. **Bukatu:** 01:08:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Astoa bazuten. Idirik ez. Behi pareak. Lurra lantzeko tresnak. Txarrantxa. Besabea. Aitzurra. Artoa eta babarruna batera. Hazia gorde. Artoa ostiral Santu egunean aletzen zen, ereiteko.</p>

27. Arto lanak eta taloak

- **Erref:** DON-108/049

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:08:34. **Bukatu:** 01:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Arto zuriketa Gabonetan. Artoaren lanak. Zurikinak kendu. Jorratu. Taloa umetan jaten zuen; amak nola egiten zituen. Azoketakoak ez zaizkio gustatzen.</p>

28. Otorduetan, pitarra

- **Erref:** DON-108/051
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:12:21. **Bukatu:** 01:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Edateko ez zieten urik ematen. Ur ardoa, pitarra, esnea... umetan eta gaztetan. Pitarra gazia. Jana ere gazia. Zizarra. Aranak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com